

**Arantzazuko Ama,
Begoñako Andra
Maria, eta
Estibalizko Ama
Birjina, mundu
zabaleko berrehun
irudiekin batera
daude ikusgai**

Hogei urte bete ditu santutegiko
Ama Birjinaren irudien galeriak

2004 Eka 3

Herri bateko zaindariaren erreplika bat Torreciudadeko santutegira eramateko ohitura 1984an hasi zen, IX. urteurrena ospatu zenean. Orain, milaka erromes abian jartzen duen ohitura bihurtu da, bai bere herriko irudia eramateko, bai galerian erakusten dena ikusteko. Hogei urte igaro ondoren, bost kontinenteetako berrehun taila baino gehiago hurbildu dira Torreciudadera. Aitorlekuen kaperen kriptan dagoen galerian ikus daitezke irudi hauek.

Berrehun irudi horiek osatzen dituzten eskultura, taila eta koadroen artean, EAE eta Nafarroako zaindari garrantzitsuenetako batzuk daude: Zumarragako Antiguako Ama, 1997an iritsi zen; Iruñako Maitasun Ederraren A. B., 1998an; Begoñako Andra Maria, 2000ko jubileuan; Donostiako Eskibelko A. B., 2000ko uztailean; Los Arcosko A. B., 2001ean; Estibalizko A. B., 2001eko urrian; eta Lizarrako Puyko A. B., 2003ko urrian.

Arantzazuko Ama, Torreciudadeko
santutegia zabaldu zeneko 25
urteurreneko egun handian etorri
zen. Ospakizuna 2000ko uztailaren 7
eta 8an izan zen, Javier Echevarria
Jn. buru zela. Donostiako Orfeoiak
Aita Madinaren Gure Aita eta Maite
Aranzabalen organo jole
gipuzkoarraren TCeko Ave Maria
kantatu zituen, besteak beste. Ama
Birjinarekin Elustondo Aita zena
etorri zen, baita santutegi
gipuzkoarreko Parroki-Batzarreko
zenbait kide.

2001ko maiatzaren 21ean Begoñako
Ama Birjinaren kopia bat etorri zen,
Begoñako Andra Mariaren Kofradiak
antolatuta eta Telmo Zarra buru
zutela. Ekitaldian Blazquez gotzainak
idatzitako eskutitz bat irakurri zen.
Estibalizko Ama Birjina, Mugika Aita,
bertako santutegiko priorea, lagun
zuela etorri zen; ez zen falta arabako
familia askoren maitasuna.

Torre-ciudadera erromesaldian
iritsitako azkeneko irudiak hauexek
dira: Afrikako Grazi guztietako A. B.,
Boli Kostakoa, eta Shen-Sheneko A.
B., Toronton bizi diren txinatar
katoliko talde batek utzia.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/arantzazuko-ama-
begonako-andra-maria-eta-estibalizko-
ama-birjina-mundu-zabaleko-berrehun-
irudiekin-batera-daude-ikusgai/](https://opusdei.org/eu-es/article/arantzazuko-ama-begonako-andra-maria-eta-estibalizko-ama-birjina-mundu-zabaleko-berrehun-irudiekin-batera-daude-ikusgai/) (2026
Ots 27)